

# Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 5. go zbkia. 1994ko urria. 100 pzta.

Iritzia:

**Montse Aranari  
erantzuna.**

Kirola:

**Piraguismoa,  
konstantziaren  
saria.**

Antimilitarismoa:


**Objezioaren lehen  
pausuak (II)**

Lucia Lakarra:  
Zumaiako dantzari  
internazionala



**Erreportaia:**

**Birziklapenaren garrantzia**




Ana Rodriguez-ek utzitako argazkia.

*1924 inguruko argazkia dugu hau., Urolaren inauguraziokoa hain zuzen ere. Hor, Abiadura Handiko Tren horien artean azaltzen diren gizon elegante horiek, garai hortako autoritateak ditugu.*

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**



**ZUMAIako INSTITUTUA**

Aita Mari Auzategia, z/g

20750 - ZUMAI A

86 08-09/86 08 10

Argitarapen honen edizioko laguntzaile



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**

Zumaiako Udalak diruz  
lagunduriko aldizkaria



**BALEIKE**

**HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea  
tfnoa: 86 10 56

argitaratzailea

**ZUMAIAKO GAZTE  
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua  
Esther Martinez  
Itziar Manzidor  
Xabier Azkue  
Igor Uranga  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta  
Juan Luis Romatet

kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea,  
Miriam Romatet,  
Aitor Leiza, Izar Martin,  
Imanol Manterola, Daniel  
Carballo

publizitatea  
Amaia Korta  
(860422)

inprimategia  
Gertu Koop. E.  
(Zubillaga - Oñati)  
tirada: 600 ale

Lege gordailua: SS-405/94

**BALEIKEk ez du bere gain  
hartzen aldizkarian  
adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzunkizunik.**

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Iritzia AEK eta Zumaiako Udala .....	4
Ze Berri?: .....	6
Elkarrizketa: Lucia Lakarra.....	9
Natura: Perretxikoak.....	12
Erreportaia: Birziklapena.....	14
Inkesta fotografikoa: Oikia-Zumaia.....	17
Komikia: .....	18
Gaztedia: Txerrimuñoren historia.....	20
Antimilitarismoa: Objekzioaren lehen pausuak (II).....	22
Sexualitatea: Emakumeentzako kondoia.....	24
Izerdi Patsetan: Piraguismoa.Plaieroak.....	26
Literatura: Bertsoak.....	29
Kultur Agenda.....	30
Musikaz blai: Ke Rule.....	32
Denborapasak.....	34
Merkatu txikia.....	35
Gutunak.....	35

**H**itzaurrea

*Gizarte kontsumista honetan daramagun bizitza erritmoa ezinezkoa da. Gisa hontako bizikera batekin aurrera joateko, erre beharrean aurkitzen garen materia kopurua izugarria da, epe motzera planetaren hondamenera iritsiko garelarik: Amazonaseko oihana txikitzen ari gara zuhaitzak zaindu beharrean, kontutan izan gabe berau dela oxigeno sortzailerik garrantzitsuena, petroleo putzuak eten gabe esplotatzen ditugu, eta meategietan beste hainbeste. Noiz arte horrela?*

*Horregatik eta hainbat arrazoi gehiagotatik, materialen birziklapena irtenbide bat baino gehiago da: helburu bat da. Gaur egun erabiltzen ditugun materialik gehienak birziklagarriak dira eta materia berrien esplotazioa ez da beharrezkoa ez. Papera, kristala, plastikoa, pilak eta egunero erabiltzen ditugun beste hainbat gauza birzikla daitezke!!! Kontsekuenteak izan gaitezen bada, eta gure gizartea ere birzikla dezagun gizarte hobe baten bila.*

**PREMAZKO TELEFONOAK:**

Kultur Etxea .....	86 10 56	Tren Geltokia.....	86 11 27
Polikiroldegia.....	86 20 21	Taxi geltokia.....	86 13 60
Gurutze gorria.....	86 10 93	Bake epategia.....	86 00 67
Udaletxea.....	86 02 50	Posta.....	86 15 00
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Udaltzaingoa.....	86 18 70
Osasun zentrua.....	86 08 62	Pilotalekua.....	86 21 72
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Ludoteka.....	14 32 64
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

Aurreko zenbakian Montse Arana zinegotziak aldizkari honen atal honetantxe azaldutako ideiek, erantzun bikoitza ekarri dute. Gogoratu iritziari eskeinitako atal hau edozeini dagoela zuzendua. Beraz, zer esanik baduzu, idatzi, ez zaizu ezer kostatzen eta!

## Helduen euskalduntze eta alfabetatzea kolokan

Imanol Garate. Hezkuntza Batzordeko zinegotzia

Aitortu beharra dut hasi aurretik ez dudala atsegin beste norbaitek aurrez idatzikoaz aritzea eta are gutxiago idatzi bat goitik behera gezurtatzea bainan Montse Arana zinegotziak "AEK eta Zumaiaiko Udala" izenburupean esaten dituenak arazoaren "beste bertsioa" azaltzera bultzatu nau.

Orainartean Zumaian helduen alfabetatze eta euskalduntze zerbitzua AEK-ren ardurapean egon da. Aek-k egin duen lana ukaezina da, udal langileen euskalduntze eta alfabetatze arrakastatsua eta matrikulazioaren gorakada nabarmena honen islada garbia izanik.

Egungo udal gobernuaren (PNV-PSOE) nahia ordea AEKrekin zerikusirik ez lukeen Euskaltegi bat sortzea izan da, legealdi honen hasieran garbi azaldu zuten moduan.

**"Egungo udal gobernuaren nahia AEKrekin zerikusirik ez lukeen euskaltegi bat sortzea izan da".**

Bainan Zumaia bezalako herri batean bi euskaltegi lekurik ez dutela argi dago eta galde bestela euskalduntze eta alfabetatze munduan dabilzan adituei; ondorioz Udala eta AEKren arteko harremanetan Udalak



*aek-k joan den hilean eskeinitako prentsaurrekoan aurkeztu zuten bere euskaltegi berria.*

egindako proposamen guztiak AEKko irakasleei zuzenduak izan ziren ez AEKri; AEKk bere aldetik elkarlan proposamen bat luzatu zuen, proposamen hau Udalak ez zuen onartu. Beraz, ez da egia AEKk bere bidea jarraitu duenik, ez du beste aukerarik izan Udalak ez baitu AEKrekin elkarlanean aritu nahi izan.

Gauzak horrela Udalak, euskaltegiaren bideragarritasuna medio, mankomunitate mailako euskaltegi zerbitzua proposatzen du eskualdeko beste hainbat herritan ere zerbitzua guztiz irregularra baita (Orio, Getaria). Proposamen honen arabera, Zumaia, Orio eta Getaria Zarautzeko euskaltegiaren luzakin batzuk lirateke. Bainan gauzak era hontan azaldu beharrean, Montsek Herri Batasunaren proposamen baten zati interesatuak azaltzen ditu arrazoi moduan eta hau onartezina da. HBren proposamena ez zen euskalduntze eta alfabetatze zerbitzuari buruzkoa euskararen alde eskualdean egiten diren lan eta

saioak koordinatzeari buruzkoa baizik eta gainera Mankomunitateko bileran zuk Montse eta zure alderdikide guztiak ezezko botua eman zenioten proposamen honi.

Bukatzeko zera esan, mankomunitateko euskaltegi zerbitzuari buruz oraindik ez da inongo euskara batzordetan inongo zehaztapenik izan, ez nola antolatuko den, ez zein baliabide izango dituen. Egia esan uste dut mankomunitatearen zerbitzu hau Zumaian udalak zuzenduko duen Euskaltegia zabaltzeko aitzakia izan dela.

Dena den errealitatea beltz azaltzen zaigu, aurtengo ikasturtetik aurrera herrian bi euskaltegi izango ditugu, bata AEK-k zabalduko duena eta bestea udalak zabalduko duena. Udal gobernuak lortu du azkenean bere nahia bainan, galdu euskalduntzeak eta orohar euskarak galdu du.

Ea inoiz ikasten dugun. ■

# Udaletxeak AEK baztertu egin du

## Zumaiako AEK euskaltegia

batzordearen bitartez, gehiago inplikatu

Ikusirik EAJ-PNV-ek talde bezala txoko honetan esandakoak eta baita Montse Arana zinegotziak ere "Baleike" herri aldizkariko "Iritzia" atalean, Zumaiako AEK-k gertatutakoak argi eta garbi plazaratzea erabaki du Zumaiako herritarrak erabaki bat hartzerakoan bi aldeen bertsioa jakin dezan.

Lehenik eta behin, argi eta garbi utzi dugu AEK-k ez duela inoiz ukatu udaletxeak laguntzarik eman dionik, eta hori publikoki esan dugu hainbat alditan (uztaileko gutuna, abuztuko Baleike, e.a.). Baina era berean, zera argitu nahi dugu: Duela 3 ikasturte Zumaiako AEK-k bere ikaslegoan ikaragarritzko igoera ezagutu zuela (40 ikasle ingurutik 100 ikasle ingurura igo zen) eta normala den bezala ordurarteko beharrak eta geroztikakoak ez zirela berdinak, ez lokal aldetik ez eta dirulaguntza aldetik ere.

Lokalari dagokionez, herri guzitan sakabanatuta eman ditugu beti klaseak (Foronda, Julene, EPA eta ikastola batez ere). Horrela herrian euskaltegi baten beharra somatu zen ikaslegoaren igoera zela eta (leku finko bat euskarazko klaseak emateko).

Dirulaguntzari dagokionez beriz, udaletxeak nahi izan duen kopurua eman digu beti (500.000pta 40 ikasle zeudenean eta 600.000 ia 100 zeudenean). Eta horregaitik diogu beharrak aldatu egin zirela lokal zein dirulaguntza aldetik ikaslegoa hainbeste igo zenean.

Egoera nahasi honen aurrean AEK-k Hitzarmen Proposamen bat landu zuen udaletxea ere, euskara

zedin Zumaia euskalduntzen. Hitzarmen proposamen hau EA, HB eta EAJ-ri aurkeztu zitzairen, lehenengo biak oso ondo hartu zutelarik eta beren aportazioak ere egin zituztelarik. EAJ-k ordea, AEK-ren proposamen honi udal euskaltegiaren proposamen batekin erantzun zion, eta hementxe dago, hain zuzen, egoera guzti honen gakoa, izan ere une honetatik aurrera, eta EAJ-PNV-ek hala nahi zuelako, ez zen AEK-ren proposamena gehiago eztabaidatu beraiena bakarrik baizik (nahiz eta AEK-rekin batera EA era HB-k ere bi proposamen eztabaida eskatzen zuten). Zergatik eztabaidatu da proposamen bakarra mahai gainean bi egonik? Hori EAJ-k jakingo du, noski.

### **"Zergatik eztabaidatu da proposamen bakarra mahai gainean bi egonik?"**

Hemen EAJ-PNVk esaten dituen zenbait gauza argitu beharrean aurkitzen gara Zumaiako AEK-ko irakasleok:

1. Ez da egia EAJ-k AEK-ri inolako proposamen luzatu dionik. Udaletxeak luzatu duen proposamen bakarra guri, irakasleoi, zuzendu zaigu, ia udal euskaltegiko irakasle izan nahi genuen proposatuz. Era berean ez da izan AEK proposamen hori baztertu duena, irakasleok baino. Horregatik esaten dugu EAJ-k ez diola oraindik AEK-ri inolako proposamenik luzatu, AEK-ren proposamena ez baita eztabaidatu ere egin.

2. Ez da egia ere AEK-k

udaletxearekin akordio bat lortzeko borondaterik eduki ez duenik, alderdi guztiei hitzarmen proposamena aurkeztu baitziren bakoitzak bere aportazioak egin zitzaizkien eta horrela akordio bat lortu zedin. Gure ustetan EAJ izan da AEK-rekin akordio bat lortzeko borondaterik eduki ez duena, udal euskaltegiarekin itsuturik AEK baztertu baitu. Gaineratu nahi dugu Zumaiako EAJ-ren jarrera hau ulerkaitza egiten zaigula, batez ere Eusko Jaurlaritzan alderdi bera, AEK errekonozitu ondoren, elkarrizketetan hasi denean (beraz, subentzioak egon daitezke).

3. AEK-ren 5 milioiko defizitari dagokionez zera argitu behar da: hitzarmen proposamenean argi eta garbi azaltzen da udaletxeak talde/orduko 2.500ptako dirulaguntza luzatu diola AEK-ri eta superabitik egotekotan AEK-k diru hori udaletxeari bueltatuko diola. Baina ez da egia udaletxeak 5 milioi horiek jarri behar dituenik. Gainera hitzarmen proposamen horretan puntu eta koma guztiak ziren eztabaidagarriak, baita talde/orduko 2.500ptako dirulaguntza ere.

Azkenik esan EAJ-PNV-ren itxitasun honen aurrean, eta Zumaian helduen euskalduntze eta alfabetatzeak behar zuelako, AEK-k bere bizkar hartu duela euskaltegi berri bat irekitzea. Euskaltegi hau Erribera kalea 1, behean dago, eta gure ustetan Zumaiako euskalduntze alfabetatzean orain arte eginiko aposturik sendoena da. Gaineratu nahi dugu ere EAJ-PNV-ren itxitasun honek ez du eraginik izan (ez eta izango ere) Zumaian AEK-k klaseak normaltasun osoz eman ditzan. ■

# BABES OFIZILA EKO ETXEBIZITZEN PROIEKTUA AURRERA DOA

## Haserako proiektutik ez da inolako aldaketarik egon

Etxebizitza hauen inguruan zegoen polemika edo ez polemika alde batera utzita, egitasmoak bere horretan jarraitzen du. Eraikiko diren 36 etxebizitzak eskuratzeko zozketa egin da eta baita 2. fase batean joango diren beste 52 etxebizitza hoietarako ere.

*Baleike*

Uztailean Aita Mari zineman egindako bileraren ondoren, ez da zaila somatzea hara bertaratutako guztiek eraman zuten desengainu eta zaplastekoa. Denak bezala, jendea injeinuitate osoz hurbildu zen bilerara, pentsatuz sekulako aukeraren aurrean aurkitzen zirela, "txollo" baten aurrean.

Ez da ordea halakorik gertatu. Jendeak hasera batean zituen ideia eta esperantza guztiak bertan behera gelditu dira. Askorentzat, etxebizitzaren bat eskuratzearen esperantza ezjakintasunaren eta aditzera eman ziren diru zifren atzean ezkutaturik geratu dira.

Kontuak kontu proiektuak bere lehen pausuak eman ditu. Irailean, lehen eta bigarren faseko etxebizitzetarako zozketa egin zen. Dakizuenez, orain egingo



*Inguru honetan eraikiko dira babes ofizialeko etxebizitzak*

den lehen fase honetan 36 etxebizitza joango dira. 36 hauen barruan suertatu ez direnak zain egon beharko dute, norbaitek huts eginez gero bere lekua hartzeko.

Zozketan suertatuak izan direnen artean berriz, kooperatiba bat osatu dute proiektua aurrera eraman ahal izateko. Era berean, kontseilu errektore bat eratu dute erabakiak hartzeko, nahiz eta Zumaia Lantzen erakundearen superbisiopean egon.

15 milioi inguru balio duten etxebizitza hauen diru sarrerren fasea hasi da dagoeneko. Irailean, bazkide bakoitzak 60.000 pezeta ordaindu zituen. Fase hau, datorren urteko ekaina aldean amaituko da, bazkide bakoitzak ia 4 milioi ordaindu ondoren. Gainontzekoa, kredituen laguntzaz ordainduko da. Gogoratu, lehen faseko etxebizitza hauen eraikuntza lanak orain hasi eta urte t'erdi, bi urteren buruan bukatuko dituztela, gauzak okertzen ez badira behintzat. ■

### LANPOSTUAK LANBIDE PRESTAKUNTZAN

Urola kostako udal elkarteak bere lanbide prestakuntzarako zenbait lanpostu betetzeko premia du. Hori dela eta, Zumaia Udal elkarte honen barne dagoenez, deialdi bat egiten dute lan hauetan aritzeko gai diren zumaiarroi, postu hauen berri

izan dezaten. Lanpostuak hauek dira:

- Monitore sozio-laboral bat.
- Lanbide prestakuntzarako kudeatzaile bat.
- Tailerrera monitor bat "Margoketa eta paperezketa" espezialitatean.

Interesatuta zaudeten guztien esku daude oinarriak Mankomunitatearen bulegoetan:

"EBRO ETXEA"  
Zumalakarregi, 16 ZARAUTZ  
Tlf: 13 13 74

# Zumaiako aek-k lokal berri bat zabaldu du

## Nahiz eta udaletxearekin akordiorik lortu ez, ez dute atzera egingo beraien asmoetan

Jadanik martxan dagoen ikasturte berri honetarako, Zumaiako aek-k bere beharrak betetzen dituen lokala estreinatu du. Nahiz eta udaletxearekin akordiorik ez lortu, Zumaiako aek-k esperantza eta gogo handiz ekin dio aurrerapauso bat suposatzen duen bide berri honi.

*Baleike*

Sei gela dituen euskaltegi berri eta txukun honen atzean, orain dela 25 urte hasitako mugimendu baten historia dago, gezurra badirudi ere. Garai haietan Maitena zineman egindako bileratik aurtengo irailak 23an egindako lokalaren inagurazioraino "euri asko egin du", Juanito Dorronsorok prentsaurrekoan adierazi zuen bezala. Hainbat ikasle eta irakasle pasa dira Zumaiako aek-tik, baina gaur arte ezin izan dute horrelako lokal batetaz gozatu. Eta egia esan, beharrak, premiak berak ekarri du euskaltegi berriaren sorrera.

90ko hamarkada honetan Zumaiako aek.k gorakada handia izan du ikasle kopuruan. Horrek, 7 irakasle eta bost lokal ezberdin



*Prentsaurreko batetan aurkeztu zuen aek-k bere euskaltegi berria.*

izatera bultzatu ditu gaur arte.

Egoera kaotiko honi irtenbide bat eman nahirik, duela bi urtetik hona udaletxearekin harremanetan izan dira, azkenik, denok dakigun bezela, akordiorik lortu gabe. Akordio ezaren ondorioa tamalgarria da: elkarlanean aritu beharrean euskaltegi batean, zumaiarrok bi euskaltegi izango ditugu, aek-rena eta udal euskaltegia. Tamalgarriagoa da oraindik akordio eza, kontutan hartzen badegu Euskal Autonomi Elkartearen mailan aek eta Eusko Jaurilaritza negoziatzen ari direla.

Hala ere, prentsaurrekoan adierazi zuten moduan, beren

proiektuarekin aurrera jarraitzeko asmoa dute, "Zumaian euskalduntze lana amaitu gabe dago eta". Hain zuzen ere, asmo horren erakusgarri dute bi helburukin jaio den euskaltegi berri hau. Alde batetik, aek-ren presentzia indartzea (iaz 86 ikasle izan zituzten). Bestetik, euskalduntze eta alfabetatze lan horretan mota guztitako jendearengana zabaltzea: langileak, gurasoak, ikasleak...

Behingoz aek-k badu lokal eder bat Zumaian. Orain, bere funtzioa betetzeko aukera bat eman diezaiozun... euskerak merezi du!! ■

**Arkupe**  
*Ohindegia*  
*eta gosariak*  
 Kale nagusia, 2 ZUMAIA

**ZUMAI A**

**PRACTICAS**  **STOP**

**AUTO -ESKOLA**

- \* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- \* Praktika eta azterketak Azpeitian
- \* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea  
 ☎ 861018 20750 ZUMAIA

# HERRIAK "TXATO" GOGOAN

**Xabier Kalparsoro omendua izan zen bere erahilketaren lehen urtemugan**

**Joan den hilaren 26an bete da urte bete Xabier Kalparsoro, zumaiar gaztea poliziaren eskuetan hil zela. Honen ondorioz, eta urte bete beranduago, omenaldi bero bat eskeini zitzaion herrian, gazte honen torturapeko heriotza salatuz.**

*Baleike*

Aste oso batean zehar izan ziren hainbat ekitaldi "Txato"ren omenez. Hauen artean, bi hitzaldi: batetik, Jarrairen historia, eta bestetik "Txato"ren kasuaren egoera epaitegian, eta tortura kasu guztiena orokorrean. Azken hitzaldi honetan, tortura kasuek epaitegietan duten inpunitatea salatu zuten, eta bereziki "Txato"ren kasuan, tribunalek izan duten azpijokoa.

Hontaz gain, ostiralean, ehun pertsonatik gora bildu ziren afari herrikoi batetan.

Baina benetako omenaldia larunbatean eskeinitakoa izan zen. Eguerdian ehundaka pertsona bildu ziren Algorriko labarretan, non orain urtebete Xabi-ren errautsak aineratu ziren. Aurten, txalapartaren doinuak, eta bertsolarien kantuak lagun, errauts horiek aineratu ziren toki berean, berak idatziriko azken gutuna

lurperatu zen, toki berean lurperaturiko mezua "Anuk-en egia" dela adierazten digun plaka bat ere ezarri zelarik.

Arratsaldean, beheko plazan mila lagunetik gora bildu ziren azken omenaldi bero bat eskeintzeko Xabiri. Aurreku, txalaparta eta ekitaldi ezberdinen artean, hiru hizlari izan ziren: HBko mahai nazionalako kide den Floren Aoiz, Jarraiko bozeramailea Mikel Zubimendi, eta Amnistiaren aldeko batzordetako Garikoitz Tapia. Guztiek, Xabiren torturapeko heriotza salatu zuten, honen konpromezu militantea goraiatuz, eta PNV-ren azpijoko eta saldukeria salatzen zutelarik, guzti hontan ertzaintzaren papera ere garrantzitsua izan dela gogoratuz. Ondoren manifestaldi bat izan zen herrian zehar, omenaldian parte hartu zuen jendearekin. ■

## SEI LAGUN GOSE GREBAN

Bitarte horretan, sei lagun izan dira Zumaian gose greban bost egunetan zehar, euskal preso politikoek eta Euskal Herri osoko ehundaka lagunek aurrera eraman duten gose grebarekin batera, presoek eskubideak errespetatu dituzten eskatu asmoz. Hiru ziren eskaera nagusiak:

-Preso guztiak Euskal Herriko espetxeetan biltzea.

-Kondenaren bi herenak bete ondoren kalean egon beharko luketen 77 presoak askatzea.

-Gaixotasun larriekin dauden presoak libre uztea.

Gose grebalariak, baraualdiak iraun duen bost egunetan zehar eskola txikian izan dira, amaitzean enkartelada bat egin zelarik presoek eskubideen alde.



*Algorriko labarretan lurperatu zen bere azkenengo gutuna.*

**AIZMAN-KOS S.L.**

**SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZAMATERIALA**

Iraeta auzoa z/g  
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24  
20740 IRAETA -  
ZESTOA

**NIKOL-ENEA TABERNA**

**Amaiako plaza  
ZUMAIA**

**Tfnoa: 861440**



# Lucia Lakarra: Bizitza Guztia Dantzari Lotua

## 13urtekin irten zen herritik dantza seriocki hartzeko. Gaur egun Marsellako Ballet Nazionalean dago

19 urtetako neskatila zumaian honek txikitandik dantza egiteko bokazioa duela erakutsi du. Hasieran afizio bat bezela praktikatzen hasi zuena poliki-poliki ofizio bilakatu zaio, oso sakrifikatua den ofizioa. Hain gazte izanik ere, dagoeneko badaki zer den arrakasta dastatzea.

Ruth Arano, Ana Igual

Zumaian agian jende askok ez du ezagutuko zein den neska hau. Hau ez da arraroezia oso gaztea zenetik herritik ospa egin baitzuen eta ordutik gutxitan izan degu geure inguruan. Baina argi dagoena da neska honek tarte berezi bat merezi behar duela berataz hitz egiteko.

Hiru urte zituenetik erakutsi zuen dantza ikasteko gogoia eta hortik abiatuz pausoz-pauso dantzaren mundu zail horretan leku garrantzitsu bat eskuratzea lortu du. Victor Ullate dantzari ezagunaren konpainian lau urte igaro ondoren, Marsellako Ballet Nazionalera pasatu da.

Bere karrera guztian izan duen eboluzioaz, esperientziak eta beste zenbait gauzetaz hitz egiteko, solasaldi bat izan degu berarekin.



Sakrifizio asko egin arren, arrakastak dena sendatzen du.

### *Zergatik eta nola hasi zinen dantza egiten?*

Hiru urte nituenetik dantza ikastea nahi nuen baina Zumaian ezinezkoa zen ez baitzegoen non eginik. Hala ere, bederatzi urte nituela Mari Paz Kastor-ek dantza akademia bat zabaldu zuen eta bertan jardun nintzen denboraldi batez. Tarragonan eta beste zenbait lekutan ere beste ikastaro batzuk tartekatu nituen. Serioski ordea, maila nahiko handia duen Donostiako akademia batean hasi

nintzen. Han hiruzpalau urte igaro ondoren, Victor Ullate dantzari ezagunaren eskolan sartu nintzen Madrilen, Euskal Gobernuak luzatutako beka bati esker. Eskola honetan urtebete eskas pasa ondoren, Victor Ullate beraren konpainian sartu nintzen.

### *Momentu honetan zer ari zera egiten?*

Ullaterekin lau urte pasa ditut eta orain Marsellan nago bertako Ballet Nazionalean.

### *Diferentzia handia al dago ballet konpainia batetik bestera?*

**EGOKI**  
**ERLOJU DENDA**

E: Gurrutzaga plaza, 6  
**ZUMAIA**

**FRONTON**  
**Taberna**

E. gurrutzaga plaza  
**Tel: 862172 ZUMAIÀ**



Surf

Torre Luzea, 2  
Tel. 86 50 24  
20800 ZARAUTZ

Eribera, 2/g  
Tel. 86 23 09  
20750 ZUMAIA

Bai, diferentzia handia. Frantzian askoz antolatuagoak daude, hezituenak eta jendea askoz hobeto tratatzen dute. Ballet Nazionala izanik erreztasun gehiago dituzu, jende gutxiago gera eta ondorioz tira-bira gutxiago ditugu. Ullateren konpainian aldiz gehiago ginen, familia bat bihurtu gintezen nahi zuen baina hau ez zen posible

**Frantzian dantzariak Espainian baino hobeto tratatzen dituzte**

hainbeste jende egonik.

**Frantziara joatean, ambientea hotzagoa izango zen, ezta?**

Ez,ez. Aluzinatuta geratu naiz eskeini didaten harrera onagaitik; ez nuen horrelakorik espero. Jende guztiarekin harreman ona det, daukaten oztopo bakarra hizkuntza delarik. Frantsesa ez det batere ulertzen eta sarri ez dakit "berde" jartzen nauten, nitaz ari diren edo zer -parre artean-, baina azkenerako ohitzen zera, beharko!

**Zer egiten dezu egun normal batean?**

Frantziako konpainia hau oso handia da bi klase ezberdin izaten ditugularik, neskak eta mutilak

elkarrekin nahastu gabe. Bi estudio daude, bat balletarentzat eta bestea solista garrantzitsuentzat. Eguna klase eta entseien artean igaroten degu, ez degu asti gehiegirik beste ezertarako. Gainera, balletean ez da klaseetara joan, entseiatu eta gero etxera, ez. Beti ere balleta buruan dezu, nola hobetu zure mugimenduak, deskonektatu gabe.

**Ballet klasikoa ala modernoa?**

Klasikoa asko gustatzen zait baina ez det hala ere horrelako preferentzia handiegirik.

**Sakrifizio handia egin behar al da "cuerpo danone" hori edukitzeko?**

Janari kontuan Victor Ullate oso zorrotza zen, burua asko jaten zigun. Frantzian askatasun gehiago ematen dute, askoz profesionalagoa da; bakoitzak jakin behar du bere gorputza nola zaindu behar duen dantzatzeko. Sakrifizio handiena ilea moztea izan zen. Ilea motza izatea komeni da eta nik betidanik luzea izan dudanez, izugarri kostatu zitzaidan. Gauza guzti hauek ahazten dira ordea eskenatoki batean dantzan zaudenean eta ikusleak txalo zaparrada bat eskeintzen dizutenean. Benetan, sufrimendu guztiak konpentsatzen, ahazten dizkizu.

**Konpetentzia handia al dago?**

Bai handia, baina



*Solasaldi patxarosoan jardun ginen Luciarekin. Dantza munduko hainbat eta hainbat gauza azaldu zizkigun*

**ERTZ**  
INFORMATIKA  
\* KONPUTAGAILUAK  
\* OFIZINAKO TRESNAK  
\* AKADEMIA

Mendaro Marinela, 3 behea  
Telefonoa: 143395 ZUMAIA

*Endeñola Zumaiak*

\* SUKALDERAKO ALTZARIAK  
\* ELEKTROGAILUAK  
\* BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Embera, 8  
Telefonoa: 861694

ARRAIN ETA MARISKOAK

**7**

BARAZKIAK ETA AURREZ PRESTATUTAKO JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

## Ballet munduan ezin zera momentu batez ere deskonektaturik egon

kompetentzia sanoa. Intentzio eta borondate txarreko jende askorik ez dago. Borondate txarrarekin, albokoa izorratuz eta azpijokuak egiten dabilena gora heltzeko, normalean ezerezean geratzen da. Norbera bere merituengatik ailegatzeko da gorenko mailara.

*Ze proiektu dituzu eskuartean?*

Hemendik urte bukaerarte hiru ballet montatu behar ditugu, lan handia eskatzen dutenak. Gero Estatu Batuetara eta Japonia aldera joan behar gera dantzatzera.

*Asko bidaiatzen dezue, dirudienez.*

Hau da lanbide honen gauzik ederrenetako bat. Bidai asko egiten ditugu, leku ugari ezagutzen: Kuba, Holanda, Frantzia, Italia, Penintsula osoa...eta esan bezala orain Estatu Batuetara eta Japoniara abiatuko gera.

*Batetik bestera ikuslegoa oso ezberdina izango da.*

Bai. Kadizeko ikuslegoa adibidez oso beroa da, baita Kubakoa ere. Holandan berriz hotzagoak dira. Herrialde bakoitzean ezberdina da ikusleen erantzuna.



*Interpretazioa oso garrantzitsua da. Hona hemen adibide garbia.*

**"Ikusleen txalo zaparradek sufrimendu guztiak konpentsatzen eta ahaztarazten dizkizu"**

*Komunikabideekin zer moduz?*

Marsellan nagoenetik komunikabideekin hartueman handia det, elkarrizketak direla eta ez direla. Gainera, Frantzian dantzaria bera baloratzen dute. Ullaterekin geundenean, bera zen protagonista beti onerako edo txarrerako, dantzariak ia

anonimotasun batean geratuz.

*Bukatzeke, Zumaiako gazte jendea aldatua ikusten al dezue herritik irten zinenetik hona?*

Uff! gertatzen dena da ni hamahiru urtekin irten nintzela hemendik eta ez nuen denborarik izan lagunak egiteko. Ordurako dantza munduan sartua nengoan, bertako jendearekin harremanatzen nintzen, bizitza ezberdinago bat eramanez. Horrela, Zumaiara etortzen naizen gutxitan jendeak ez nau gehiegi ezagutzen, baina beno alde batetik normala ikusten det. Edozein modutan, ez zait gehiegi gustatzen dagoen tabernetako giro hori. Aspertu egiten naiz ezer berezirik egiten ez banago; nahiko neska mugitua naiz. ■

**leize**  
**TABERNA**

Juan Belmonte, 6  
Tel. 860415 ZUMAIA

Erribera Kalea, 6  
Telefonoa: 86 17 07  
Fax: 86 17 07  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Amaiako plaza, 7  
Tel.- Fax: 862385  
20750 ZUMAIA

# PERRETXIKOAK BILTZERA !

Inguruko perretxikoetaz argibide batzuk ematen dizkigu Natur taldeak

Udazkenarekin iritsi zaigu perretxiko garaia. Lerro hauen bitartez, Zumaiako Natur Taldekoek aholku batzuk eman nahi dizkigute, mendira joaten garenean arriskurik gabe praktika honetaz goza dezagun.

Zumaiako Natur Taldea

Perretxikoak landareak direnez, haziak dituzte. Hazi hauei esporak deitzen zaie, eta hazien bitartez perretxikoa sor dadin hurrengo prozesoa jarraitu behar du: Lehenik perretxikoa bere heldutasun maila gorenera iristen denean hasiak edo esporak botatzen ditu, batzuk positiboak izanik eta besteak negatiboak (harra eta emea izango balira bezala). Banandurik ernetzen dira, horrela sustrai nagusiak sortzen direlarik. Bi sustrai hauek topatzen direnean eta eguraldi aproposa aurkituz gero perretxikoa sortzen hasten da, elikadura modu ezberdinak aukeratuz.

**1. Saprofito era.** Elikadura era hau sustantzia hilez elikatzen diren perretxikoak erabiltzen dute. Adibidez, hostro, adar hilak, deskonposaketa fasean dauden animaliak... Bere elikadura karbonatua da. Elikadura mota honetan, aipagarrienak: Coprinos, Paneolas, Agaricos, e.a.



*Amanita Muscaria.*

**2. Parasito era.** Parasitoak, beste organismo bizidunen menpean bizitzeko kalitate dute, beste organismo hauek animaliak edo landareak izan daitezke, askotan parasito hauek zuhaitzak suntsitzera iritsi daitezke. Perretxiko hauen adibide, paliforoak dira. "Xerocomus parasiticus", gehienetan "Scleroderma vulgarreren" gainean hasten da, bigarren perretxiko hau desagertuz. Hau izan daiteke elikadura era honen kasurik aipagarrienetariko bat.

**3. Era sinbiotikoa.** Era hontan elikatzen diren perretxikoak mesedea egiten diote hazteko aukeratu duten zuhaitzari. Karbonatodunak eskeintzen dizkio. Landareekin elkartzen direnean

perretxiko hauek askotan lorea ematen laguntzen dute.

Baina perretxikoen mundua ez da dirudien bezain erreza, milaka espezie ezberdin aurkitu ditzakegu, eta hauetatik asko pozoingarriak dira, eta zenbaitetan heriotza ekar dezakete, beraz, kontu handia eskatzen duen mundua da.

Bi intoxikazio mota ezberdin daude: Lehenengo motan azkar igertzen da perretxiku txarrak direla, gustoarengatik. Tripako mina eta diarrea sortzen dute. Adb: Agaricus Xhantoderma. Beste intoxikazio mota "Faloide" motakoa da, lehen aipaturikoa baino askoz ere arriskutsuagoa. Jan eta ordu batzuk

**ERROTA** **ERROTA**  
**OPIL - OKINDEGIA**  
 Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68  
 Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01  
 ZUMAILA

**BASADI** **ALBAITARITZA**  
**KLINIKA**  
 DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
 IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
 - ALBAITARIAK -  
 LARRIALDIAK  
 · 24 orduetan  
 · Zeure etxean  
 · Telef. 900-282828  
 Abonatu zbkia: 247790



*Amanita Phalloides*

pasa eta gero egiten du efektua eta tratamendu oso konplexua darama nahiz eta azken urte hauetan medikuntzak aurrerapen haundiak eman.

### Inguruko perretxikoak

Gure inguruan aurkitu ditzakegun perretxikoetatik aipagarrienetarikoz batzuk azalduko dizkizuegu.

#### AMANITA PHALOIDES. "ILKOR"

Hilkorra da. Perretxikoen eraginez hiltzen diren %95 amanita hau jateagatik hiltzen da, beraz esan dezakegu arriskutsuena dela. "Gibelurdinarekin" nahas daiteke hartzerako orduan, oso antzekoak baitira. "Ilkorak" menbranadun eraztun bat dauka, kolore zurikoa. "Gibelurdinak" berriz ez du. Beste ezaugarri bat, "ilkorak" bere oinean

bolba izeneko zati zabalago bat dauka, eta besteak ez.

#### AMANITA VIROSA. "ASTOPIXA"

Agaricus eta txanpinoiarekin konfunditu dezakegu. Agaricusak ez du bolbarik, eta gazteak direnean lamina arrosak dituzte, eta handitzean marroiak. Astopixak bolba du eta lamina zuriak ditu.

**"Euskal Herrian  
intoxikazio gehien  
sortzen dituen  
perretxikoa "maltzur"  
izenekoa da".**

ENTONOMA SINUATUM. "MALTZUR". Euskal herrian intoxikaziogehien sortzen dituen perretxikoa da, oso garrantzitsua da ondo ezagutzea. "lepista nebularis" pago-zizarekin konfunditu gaitzke. Pago-zizaren laminak oineraino iristen dira eta "maltzur" perretxikoarenak berriz ez. Hilkorra izatera iritsi daiteke.

AMANITA MUSCARIA. "KULETO FALTSOA". Hau ere toxikoa da baina ez da hilkorra. Amanita Caesarea kuletoarekin nahas daiteke. Kuletoak txapel laranja du eta kuleto faltsuak kolore gorria du, nahiz eta euri asko egin eta gero kolore gorria hartu dezake. Kuletoak txapelean ez du eskamarik; besteak berriz bai. Kuletoaren oina eta laminak horiak dira; kuleto faltsuarenak zuriak.

### Aholku batzuk

Perretxikoak jasotzerako orduan kontutan hartu beharreko puntu batzuk:

1. Duda duzunean perretxikoa ez hartu, nahiz eta itxura ona eduki.

2. Nahiz eta perretxiko asko batera egon banan banan begiratu. Beste mota bateko bat egon baitaiteke beraien artean.

3. Labana luze bat eramatea komenigarria da, perretxikoa mozteko eta ez guztiz ateratzeko.

4. Amanita antzekoak hartzean ea bolba duten begiratzea.

5. Perretxikoak ondo mantentzeko otar bat eramatea beti etortzen da ondo.

6. Perretxikoa ez bada ezagutzen ez hartu. ■

# BIRZIKLAPENARENARRAKASTA ETA GARRANTZIA

Kontsumismoaren gaitzak jotako mundu honetan, birziklapena eta honen antzeko iniaziatibek berebiziko garrantzia hartzen dute eta Zumaiako herriak, aukerak eskeintzen zaizkionean erantzuten badakiela frogatu du.

Baleike

Honez gero hiru urte izango dira zaborren kontenedoreen ondoan bestelako batzuk ezarri zirela. Jendeak arazoaren kontzientzia bazuenez, berehala hasi zen ontzi hauek erabiltzen eta esan beharra dago, urte guztian jasotako beira kopuruak Euskal Herriko media gainditzen duela.

Gabonak inguruan egiten diren Natur Ihardunaldietan hasi zen kontua. Beiraren birziklapenean aditua zen hizlari bat etorri zen eta Udalak onartzen bazuen kontenedoreak berehala jar zitezkeela aipatu zuen; egin beharreko tramiteak erraz egin ziren eta VIDRALA enpresa arduratu zen bilketa lanaz.

Kontenedore hauek jartzeko kontuan izan behar da ezin direla nahi adina eta edozein tokitan jarri. Batetik kokaleku aproposak aurkitu behar dira; eta bestetik, inguruan zenbat taberna eta nolako jatetxeak dauden ikusi beharra dago, hauek beira kopuru haundiak mugitzen



Gauza bakoitza bere lekuan uzteko ohitura bultzatu behar da.

baitituzte beti ere.

## Pilen bilketa

Bi urte pasa izango dira pilak ere biltzeko ontzi hori horiek jarri zituztela. Garai hartan Eroski, Gurutze Gorria eta beste talde batzuk ere ari ziren pilak jasotzen. Baina kalean kalean ere kontenedoreak jartzea bidezkoa zela ikusi zen; inguruko herrietan ez zegoen horrelako esperientziarik eta orduan Gasteizetik ekarri ziren ontzi horiak.

Gasteizen beira kontenedoreei itsatsita daude, baina beira jasotzerakoan beira artera pilaren bat eror daitekeela ikusi denez, Zumaian aparte jarri dira badaezpada ere.

Beirarekin bezela, jendeak oso ondo erantzun du eta pila kilo ugari jaso dira, hain kutsagarriak diren botoi erako pilak tartean. Arazoa, ordea, pilak birziklatzera eramaterakoan etorri da. Horrelako zentru oso gutxi daude eta kontu bategatik edo besteगतik ez zituzten hemengo pilak onartzen.

Azkenean, Zamudio inguruko zentru batekin jarri dira harremanetan eta oraingoz behintzat akordioa lortu dute orain arte pilatuta zeuden pila guztiak birziklatzeko. Diru kopuru dexentea kostatzen da pilak birziklatzea, botoi erakoak batez ere, baina herritarren erantzuna ikusita zerbait egin beharra zegoen.



**Azkue Autoak**

Estazioko kalea, 19    Telefonoa: 861433  
20750 ZUMAIA    Fax: 861067

**BALEZULO**

**INPORTATURIKO  
ERROPA ETA ARTISAUTZA**

**INDIA- NIKARAGUA  
GUATEMALA**

**Basadi, 5    ZUMAIA**



Erribera kalea    Telefonoa: 861523  
**ZUMAIA**

# Papera ere birziklatzeko asmoa

## Kontenedoreak lehenbailehen jarri nahi dira

Paperaren arloan, egia esan, inguruko herriak aurreratu egin zaizkigu, baina honek ez du esan nahi Zumaian paperaren birziklapenari buruzko kezkarik ez dagoenik. Aspalditik dator kezka hau eta eskakizuna aspaldi egina dago Foru Aldundian, baina oraindik ez zaio herriaren nahiari erantzun.

Konturatuko zintzen Zarautzen eta Zestoan dagoeneko jarriak daudela kontenedoreak, gure herritik nahiko hurbil ere bai ( Arrua Behean ). Bi herri hauetako Udalek beren kontura jarri dituzte; Zumaiakoak nahiago izan du pixka bat zai egon eta egin behar dena herri guztiek batera egitea.

Gure herrian papera birziklatzeko kontenedoreak, egon badaude; ez ordea, kalean. Udaletxean, Forondan, ikastetxetan eta beste zenbait leku publikoetan ikusiko zenituzten ontzi edo kaxa urdin batzuk. Horrelako lekuetan paper asko erabiltzen da eta ondo jarriak daude, baina ontzi hauek ez daude prestatuak herrian bilduko litzatekeen paper guztia jasotzeko.

Ez dakigu ziur kontenedoreak noiz jarriko diren, baina badirudi diputazioak proiekturen bat baduela kontenedoreak falta diren herrietan ahalik eta azkarren ipintzeko. Or-



*Eskoletako paper bilketa enpresa pribatu batek eramaten du.*

den alfabetikoaren arabera banatzen baditu behintzat, pixka batean zai egotea tokatuko zaigu.

Badakigu hala ere, bitartekoak jarritakoan zumaia jarrera beti bezelakoa izango dela. Froga gisa aipatuko degu nola duela urte batzuk Zumaiako Institutoko ikasle talde bat aritu zen papera eta kartoia biltzen eta poligono aldean bakarrik hainbat tonelada jaso zituztela, lan handiegirik hartu gabe.

Orduan papera nahiko ondo ordaintzen zen eta bat baino gehiago

aritzen ziren papera eta kartoia biltzen. Orain, ordea, gutxiago ordaintzen dute eta ezin omen dute garestitu gainera, bestela kanpotik ekartzea askoz merkeago ateratzen baitzaie.

Oso garrantzitsua da, bestalde, eskolan eta etxean bertan papera eta bestelakoak birziklatzen irakastea; lehen pausua, zaborra etxean bertan bereizten hastea izan daiteke: papera kaxa batean gorde, pilak pote batean, botilak beste ontzi batean, eta abar.



# Natur Taldea:

## "Bilketa selektiboa bultzatu behar da"

Bilketa mota honen aldeko apustua egiten du bete-betean eta Zumaia birziklapena aurrera eramateko oso herri aproposa dela aipatzen digute Natur Taldekoek.

Beira eta pilen bilketa lanak hor daude; azkenean lortu da pilak birziklatzeko zentru bat topatzea eta hasteko, 1.480 kg eraman dira bertara. Ez da merkea ateratzen, "baina pena merezi du, batez ere ebitatzen den arriskua kontuan hartuta". Botoi erako pila kg bakoitza birziklatzea 4.000 pzta kostatzen da, eta bestelakoak 135 pzta kg-ko.

Talde honetako partaideek ere ahalik eta azkarren ikusi nahi dituzte

paperen kontenedoreak gure kaleetan. Bitartean hala ere jendea animatu nahi dute papera ere birzikla dezan: "Haruntz joan behar dezunean, ez da gehiegi kostatzen etxean daukazun papera kotxean hartu eta Zarautzen edota Arruan uztea".

Iruñea eta Lizarra aldeko kasuak aipatzen dizkigute: han materia organikoa den zaborra ere (patata eta fruta azalak, janari soberakinak, etab) aparte jasotzen da, eta tratamendu egoki baten bidez lurra bihurtuz birziklatzen dute.

Plastikoaren arazoa hor dago, hala ere; ez du konponbide errezik, gainera. "Plastiko mota ugari dago

eta ezin dira bi mota ezberdin batera birziklatu; adibidez, ur botila guztiak mota bereko plastikoa balute lanak ikaragarri erraztuko lirarteke."

### Udaltzaingoaren lana

Natur Taldekoei oso positiboa iruditzen zaie arlo honetan Udaltzaingoarekin burutzen duten elkar lana, eta aurrerantzean ere horrela jarraitzea espero dute.

Joxe Mari Elustondo udaltzainburuarekin ere aritu gara hizketan eta oraindik ere badagoela zer egina aipatu digu. Gustora agertzen da pilen kontua azkenean konpondu delako; baina oraindik ere beiraren kontenedoreen banaketa egokitzea falta omen da eta paperenak jartzea ere bai, noski!

Bestalde, hondakin solidoen biltegia ere txukundu nahi luke; orain obretako hondakinak besterik gabe botatzen dira lurrera eta jendeari erraztasunak eman behar zaizkio kontainerretara bota ditzan. Pilak, autoetako olio zikina, bateriak eta antzekoentzat ere bidai bereziak jartzea gustatuko litzaioke.

Jendeari gogorarazi behar zaio gainera, etxeko haltzariak ez direla hondakindegia honetara bota behar, hilaren azkeneko ostegunean zaborrarekin ateratzea nahikoa baita. ■



Gaur egun hondakin solidoen biltegia poligonoaren atzekaldean dago.



**MENDI - ONDO**  
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
- \* Banakoak
- \* Kolektiboak
- \* Satellite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

Axular 14  
20750 ZUMAIA

Telefonoak:  
860074 - 861569

ILE APAINDEGIA



Etsezarreta, 19  
Telefonoa: 862342

20750 ZUMAIA



## Zer irudituko litzaizuke Oikia herri bezela Zumaia tik banatzea?



**Amaia Erretegi:**

Neri igual zait. Nahi baldin badute, ba nahi dutena egitia. Ez zait asko inporta Oikia aske izatia.



**Montse Atxega:**

Gaizki. Oikiarrak zumaia rrak dira San Migelekoak bezala, zumaia rrak.



**Gaspar Azkue:**

Igual zait. Beraientzako hobeto baldin bada, ondo.



**Ramón Rivas:**

Nik uste det herri polit bat dela, eta nahiz eta Zumaia ra atxekituta egon, ez det uste Zumaia ko auzo bat denik. Udaletxe bezala, jarri zitekeen udaletxe bat, Aizarnazabal eta antzerako beste herri txiki batzutan bezala.



**Edu Aristi:**

Beraiek konforme baldin badaude nik ez nuen behintzat pegasarik jarriko. Beraien erabakia izango da. Total, hemengo udaletxeak egiten dien kasuagatikan...



**Ladis Rivas:**

Ba bai, nahi dutena, ez dakit. Bai, ez? Arrazoirik baldin badute, zergaitik ez ba? Ba... ondo, ondo irudituko zitzaidan.



**Jone Olaizola:**

Ondo. Nire ustez ondo. Beti ikusi det desberdintasun hori, Oikia, Oikia eta Zumaia, Zumaia.



**Amagoia Laskibar:**

Oso ondo iruditzen zait Ayuntamientoa eduki ezker. Neri oso ondo iruditzen zait.

96



JANN ANDREOK,  
HAINBAT ETA HAINBAT  
JOTA EDUKI ZUEN  
HONK BERE SUA  
PRINTZESEN KANTUA  
HORRELA ZO PRIN-

HEMEN DUGUNA,  
ERREINU BELDURRAK  
ERRUDUNA. DRAGOI  
MAKALTZEKO ERREINUKO  
BEHAR IZATEN ZUEN.  
TZESA BRE IZAN ...

... ZITUEN IBERE MEN-  
ERDI AROKO GARAIK  
GAUR EGON GURE DRAGOIAK  
PELIKULETAKO EXTRA  
EGITEN DU, URTEAN  
ALDIZ. IZENA  
ETA MINGAINA



ALEJANDRO III


PEAN.  
ZIREN HAIEK.  
SPILBERG-EN  
BEZALA LAN  
BI EDO HIRU  
ALEJANDRO DV.  
GORRIA DAUKA.

ZE, NAHIKOA IZAN AL DUK  
DRAGOI HONEKIN?...

BAI, NEURRI EDERRA  
ZEUKAK, ... APROPOS  
BI ORRIALDE BETETLEKO

HORRELAKORIK EGIN  
BEHARRA ERE... KOMIKI  
GIDORIK EZ IZATEAGATIK...

BAJHALA DA...



# TXERRIMUÑO: GAZTETXE BAT BAINO GEHIAGO

**Joan den abenduan bete zituen 10 urte Lezoko Txerrimuño baserriak.**

**Txerrimuño, Gipuzkoako Lezo herrian kokatuta dagoen baserria da. Herrian gazteentzat dauden alternatiba eskasak eta zenbait aktibitate burutzeko leku falta ikusirik 1983ko abenduaren 17an Txerrimuño zabaltzen da. Gazte kolektibo honek urtero kaleratzen duten Zartako fantzinetik atera dugu beraien historia.**

Zartako

Baserria nahiko egoera txarrean bazegoen ere, gazte batzuk sartu, garbiketari ekin eta "ETXEAK GAZTEENTZAT" eskubidea aldarrikatzen zuen pankarta bat jarri genuen balkoian.

Baina tira, historia ez da bapatean sortzen. Jendea zegoeneko, beste historia batzuetan mugitzen zen, hala nola ekologia (Lemoizko zentral nuklearra, Jaizkibel mendiaren egoera larria, industriek sortzen duten kutsadura nazkagarria...) edo eta beste zenbait kolektibok bultzatzen zituzten sistemaren aurkako borroketan (amnistia, errepresioa, heroina...)

Asanblada ireki bat egiten da eta berehala garai hartako Udalarri baserria erostea eta zenbait tailera antolatzeko dirulaguntza bat eskatzen zaio. Erantzuna oso sinplea izan zen: EZEZKO BOROBILA.

Urte hartako jaietan ohizko tabernen historia apurtu zen. Baserrian kriston martxa sortu zen, bertako taldearen lehen diru iturria hura izan zelarik. Noski, herrian jende gehienak porrero, makarra edo lapurtzat klasifikatzen gaituzte.

86. urtean izan zen kolektibo bezala protagonismo piska bat hartzen duenean. Garai hartan, Udalak herriko elkarte guztietaz paso egiten zuen eta ez zuen inolako dirulaguntzarik ematen. Jarrera itxi hau, Txerrimuño kolektiboarekiko bereziki, baztertu eta marjinatu nahian egiten da. Enfrentamendu honek, Udaletxean zenbait txikiketa gertatzea eta herriko gazte ugari Goardia Zibilaren aurreran salatuak izatea probokatzen du. Ondoren, eta jai ofizialetatik aparte, jai herrikoi eta alternatiboak antolatzen dira.

Heroina trafikoaren aurreran herrian eman zen borrokan ere kolektibo honek gogor jo-katu zuen.

Lezoko Udala HBren eskuetara pasatzean aldaketak nabaritzen dira. Gazte Asanblada

izeneko kolektibo berri bat sortzen da herrian; kolektibo honek, jende gazteagoa biltzen du, historia berriekin eta zerbait egiteko gogo eta ilusio handiz. Txerrimuño hasiera batean mesfidantzaz ikusten da *autonomoak* izateagatik. Gazte Asanbladakoek Udalaren eskutik gaztetxe bat lortzen dute eta urte pare bat pasa ondoren eta espekulazioa dela medio, gabe geratzen dira. Talde honetako nahiko gazte Txerrimuño inguruan mugitzen hasten da eta batzuk kolektiboan aktiboki sartzen dira.

Piskanaka, piskanaka, bai baserria eta bai kolektiboa antolatuz eta aberastuz doa, jende gazteak bereziki eta herriko jendeak orokorki ditugun arazo eta kezkei leku bat eskeiniz (intsumisioa, ekologia, etxebizitza arazoa, errepresioa,

ekitaldi kulturalak, tailerrak...).

Baserria gaur egun, herriko kontratista eta espekulatuzaile batek erosi du. Erosterakoan mobilizazioak egon ziren herrian. Herriko elkarte gehienek elkartasuna adierazi zigitelarik.

Gaur egungo



1983ko abenduak 17an Txerrimuño zabaltzen da.



**Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAIA AUTOAK**

Juan Belmonte, 45  
ZUMAIA

Telefona: 861485  
Fax: 143143



Udaletxearekin ez dago harremanik, kolektiboaz paso egiten duelako, baina herriko elkarteekin harremana dago.

Ertzaintzaren aldetik kontrol eta errepresio nekagarria somatzen dugu, taldeko zenbait kideren atxiloketa eta jipoiketak egon direlarik. Behin batean rock jaialdi batean sartu, indarrez geldierazi eta jendea kanporatu zuten. Bideo kamarak erabiltzen dituzte kontrolatzeko.

Guri dagokigunez, etorkizuna interesgarria ikusten dugu. Baserriak aukera ugari eskeintzen dizkigu eta beti ere egoteko, biltzeko aterpe, eta leku goxo bat. Leku honek eta inguruan sortzen diren gatazka eta arazoek gure izakeretan oso eragin handia dute, ezarritako eskemak puskatuz, gure poza eta gure tristurak kaleratuz, gure inguruan ikusten dugun jendea, lanean irabazkinak ateratzen dabilen bitartean. Zenbait borroka bultzatzeko ere baliogarria da baserria.

Bizitzaren balore ezberdinak ditugu.

**Funtzionamendua: autogestioa**

Hasiera hasieratik, gauzak eztabaidatu eta erabakitzeke, asanblada bultzatu da. Asanblada

hauen aurrean, jendeak, ikutzen diren gaien arabera erantzuten du. Ezer egiten ez duen jendea kritikatzeko eta gauzak serioago hartzen dituen jendearen nekea ere batzutan nabaria da. Beti ere, asanblada parte hartzaile, lagunkide eta kolektiboagoa lortu nahian.

Zenbait gertaera berezi **k e n d u t a** ( **b a s e r r i a** hustutzeko **m e h a t x u a**, kolektiboko baten **i s t r i p u**

eta hilketa, intsumisoen atxiloketak, etab.), bertan jendeak masiboki erantzun duelarik, gaur egun, astero egiten diren asanbladetan 15-20 pertsona inguruk hartzen dute parte.

Gauzak egiterakoan interesaturik dauden guztien artean lan banaketa egiten da. Jendearen partehartzea eskasa denean lan gehiegi izaten da. Egiten den lan guztia boluntarioa denez, gorabeherak egoten dira.

Etxearen mantenimenduari buruz, martxan dabilzan tailerrez gain, garbitasuna denon artean egiten da. Batzutan patxadosoekin haserreak egoten dira. Lan haundiko obrak ere egin dira, teilatuaren konponketa,

lurra, tximinia, baserriaren margoketa, gapirio aldaketak, etab.

Baserriari buruz, Txerrimuño azpikaldeko lokalak eta gainean bi pisuk osatzen dute. Beheko aldean jaietan eta rock jaialdietan bakarrik zabaltzen den barra bat dago. Ura,



*Serigrafia tailerra*

**a r g i a**, tximinia, sukaldea, artxiboa, liburutegia, tailerrak eta beharren arabera lo egiteko lekua ere badugu.

Ekonomikoki gure buruak hornitzen saiatzen gara. Ekintza zehatzetan eta segun eta zertarako, Udalaren aldetik zenbait dirulaguntza ere izan ditugu.

Taberna erabiltzen da diru iturri moduan. Rock jaialdietan sekula ez da sarrerarik kobratu.

Aktibitateak ugariak dira, talde finkatu asko dagoelarik martxan baserriak eskeintzen duen txoko hori aprobetxatuz. Horrela ekologia talde bat, intsumisoen aldeko asanblada bat, eta zine kluba dago beste hainbesten artean. Hontaz gain, kirola bultzatu da, Rugby eskola edo eskalada taldearekin. Lokala zenbait talderen frogaleku bezala erabilia izan da. Entsaioak egiteko leku bat da.

Astero antolatzen den afaria-tertulua autogestionatua, fantzinak, errepresioaren aurkako ekintzak, tailerrak (pintura, serigrafia, txirrinda, paper berziklapena...), jaien antolakuntza, etxebizitza arazoaren inguruko salaketak, ikastaroak (buztina, goma espuma, zumea, txalaparta, eskalada...), rock jaialdi ugari, etab. luze bat dira gure aktibitatearen eredu garbia.

Gure aldetik, horrela jarraitzea besterik ezin diegu opa Txerrimuño kolektibo honi. Aurrera!! ■



*"Etxeak gazteentzat" gaur egun zutik dirauen eskaera.*

# OBJEZIOAREN LEHEN BURUHAUSTEAK

## Zumaiako bigarren objetoreak bizitako esperientziak.

Iñaki Uranga Mujika, 1964an jaio zen Zumaian, eta gaur egun Madrilen bizi da. Bera da, Joseba Ossa-rekin batera Zumaiako lehenengo objetoretako bat. Objezioaren hasiera ez zen erreza izan, eta gaur egungo egoera gordina baldin bada, konturatuko zarete garai hartan, bide garrantzitsu bat zabaldu zigutela.



Iñaki Uranga

Zumaiarra bada ere, gaur egun Madrilen bizi da.

Zaila da hitz gutxitan kontatzea objezioaren inguruan izan dudako esperientzia, baina zerbait idaztea eskatu didate, eta txukun erantzuten saiaturko naiz. Hasi baino lehen garbi utzi nahiko nuke ez dudala "ejenplua" eman nahi inori. Nire esperientzia eta iritziak adierazi nahi ditut besterik gabe.

Gutxi gora-behera 1977. urtean entzun nuen lehenengo aldiz Kontzientzi Eragozpenari buruz hitz egiten. Orduan Valentzian nengoen, OHO 8. mailako ikasketak egiten, eta etika/erlijioiko irakasleak (nahiko *progrea* zen garai haietarako) komentatu zigun pertsona batzuk hasi zirela soldaduskari *planto* egiten, eta oso ideia ona iruditzen

zitzaidan, baina oso gaztea nintzen, eta urte batzuk igaro ziren erabaki bat hartu baino lehen.

**"Tribunal batek zure kontzientzia juzgatu zuen. Parregarria iruditzen zitzaidan."**

Kanpoan egiten nituen ikasketak, eta Zumaiara itzultzen nintzenean ez nuen aukera handirik izaten gai horri buruz hitz egiteko: jendea oso gauza arraroa iruditzen zitzaion. Familian ez nuen ezer komentatzen, banekielako arazoak izango nituela.

Talla egiteko garaia iritsi zen, (1982 inguru) eta ordurako Joxebak esan zidan berak objetatu egin behar zuela. Zumaiako jendeak ez zekien objekzioa zer zen ere. Gure

herriko lehen kasua zen, eta *kuriositate* handia nuen udaletxeko jendearen erreakzioa ikusteko: jendea harrিতuta geratu zen, eta zurrumuruak entzun ziren. Ez zekiten zer egin... Nik oraindik beldurra nuen, eta buelta asko ematen nizkion buruan gai honi. Azkenean ez nintzen animatu momentu horretan objetatzera, baina gutxienez *prezede*nte bat bazegoen, eta horrek bidea erraztu egin zidan. Gainera Joxeba nere laguna zen, eskolatik ezagutzen nuen, eta banekien erabaki hori gure pentsakerarekin koherentea zela. Lehen kasua izan zen.

Nere koadrilan komentatzen nuen bakoitzean, oraindik beldur gehiago sartzen zidaten. "*Kartzelara joango gaituk hi bisitatzer*a" esango zuten ironikoki.

## JUARISTI JATETXEA

- \* Arrainak eta haragiak aukeran
- \* Eguneko menua
- \* Jangela klimatizatua

Basadi Auzategia, 10 ZUMAIA Tfnoa: 861853



KAFETEGIA

Itzurun kalea, z/g Telefona: 862124 20750 ZUMAIA

Nere koadrilako lagunek begi txarrez ikusten zuten soldaduska, baina bere ordua iristen zenean, ez zuen inork gai hau planteatzen, eta gehienak joaten ziren. Zorionez azkenean beste bi lagunek ere objetatu egin zuten. Batzuentzat oso esperientzia txarra izan zen soldaduska. Ez genuen gai horri buruz hitz egiten, baina garbi ikusten nuen batzuek beren portaera asko aldatu zutela. Asteburuko permisoetan gehiegi edaten zuten. Zerbaitetik ihes egin nahi zutela zirudien.

Gero Madrileran joan nintzen ikasketekin jarraitzeko. 86-87an hango MOCekin (Movimiento de Objeción de Conciencia) kontaktatu nuen. Izan ere, MOC-eko helbidea "Calle del Desengaño, Nº 13" zen, baina mugimendua oso ondo antolatuta zegoen. Gainera, unibertsitatean objektatzeko prest zeuden gazte batzuk ezagutu nituen, eta horrek izugarriko laguntza eman zidan: jadanik ez nintzen *bitxo arraro* sentitzen.

### **"Banekien erabaki hori gure pentsakerarekin koherentea zela."**

Halako batean, 1986ko martxoan, objetatu egin nuen. MOC-eko bulegora joan nintzen, eta han esan zidaten paper batzuk bete behar zirela. Tribunal batek zure kontzientzia juzgatu zuen. Parregarria iruditzen zitzaidan. Paper horretan sinatzen genuen ez geundela ados neurri horrekin, eta ez geundela prest hortik pasatzeko. Hori izaten zen gure *plantea*. MOCekoek esaten zuten hobe genuela deklarazio kolektiboak egitea, eta ez bakarka. Neretzat oso garrantzitsua izan zen beldurra galtzeko. Deklarazioa

entregatzerakoan konturatu nintzen tramite simple bat zela, eta ez beste munduko gauza bat, nik uste nuen bezala.

Etxean esan nuenean, berehala hasi ziren komentario negatiboak. "*Folloietan sartuko zera*", "*Nola egin dezun hori?*", "*Soldaduskara joan hadi eta etzak bizitza hainbeste konplikatu*" eta horrelakoak botatzen zizkidaten. Zorionez salbuespenak ere bazeuden.

Gero jakin nuen beste



objetore batzu ere bazirela Zumaiian. Ni neure kasa ibili nintzen ia beti. Egia esan ez zegoen kontaktu handirik gure artean. Bost urte beranduago kuadrillako beste bi lagunek objetatu zuten... Laburbilduz, niretzako oso zaila izan zen gai bat zela (sentitzen nuen beldurrarengatik) eta erabakia hartzea asko kostatu zitzaidala. Baina pena merezi izan zuen.

Zeri nion beldurra? Garai hartan ez zen erraza objezioa onartzea. Oztopo asko zeuden. Teorian epaimahai bat zegoen zure kontzientzia juzgatzeko. Gauza oker joan ezker, 6 urteko kartzela zegoen.

Garai hartan zerbitzu zibilak gauza berria ziren. 10.000 edo 15.000 lehen objetoreok zuzenean erreserbara bidali gintuzten (niri

1990ean esan zidaten), oso zerbitzu zibil gutxi zegoelako hainbeste objetorentzako.

Gaur egun gauzak asko aldatu dira. Askotan pentsatu izan dut zer egingo lukeen gure belaunaldiak gaurko egoera honetan.

Gaur egungo arazoa zerbitzu zibilarekin planteatzen da. Nire iritziz "tapadera" bat besterik ez da, ejerzitoa ez kuestionatzeko erabiltzen den tresna. Gehienak ez dira etikoak, baina norbaitek egin nahi badu, horrela gizarteari zerbitzu bat eskeiniko diolakoan, ba... egin dezala. Elkar errespetatu behar dugu.

Intsumisioa, berriz, urrutirago doa, eta zerbitzuak ukatzeaz gain sistema osoaren balioa kuestionatzen du. Postura hori balienteagoa da, eta gehiago kastigatzen dute (nik ez nuke balorerik izango hori egiteko). Nire iritziz intsumisioa ez da insolidarioa, bere askatasuna arriskatzen duelako bere ideiak era baketsuan defendatzearen. Nire errespetu guztiak merezi dituzte intsumisioek.

Azkenik azken urteotan gauza bat baliozko eta positibo iruditu zait: sistema hori kuestionatu egin dela; jendea konturatu egin da soldaduskak eta ejerzitoak ez digutela gauza onik eskaintzen, alderantziz baizik: herrien arteko harreman baketsuak oztopatzen dituztela.

Utopikoak ote gara? Ez, inola ere ez. Garbi dago ejerzitoa gero eta arriskutsuagoa dela (historiari begirada bat botatzea nahikoa da hori ikusteko). Eta objetoreok aukeratu duguna oso gauza sinplea da: ejerzitoari aurre egitea eta zabaltzen ari den beste bide bat hartzea. Eta gauzak aldatzen ez diren bitartean, horrelaxe jarraituko dugu. ■

# Emakumeentzako kondoia: iraultza ala atzerapausoa?


Antisorgailu honek mota ezberdineko iritziak sortarazi ditu

Jakina da antisorgailu sistema berri bat sortzea beti dela positiboa. Dena den, aztertu beharra dago zertan datzan sistema horren berritasuna. Kontu hau ez dago batere argi "Femy" emakumeentzako kondoia kasuan.

Baleike

Joan den hilabetean, aski ezaguna den gizonentzako kondoiaz aritu ginen. Antisorgailuekin jarraituz, oraingoan emakumeentzako asmatu duten kondoia aztertuko dugu. Batzuk izango duzue bere berri; beste askok aldiz ezta entzun ere. Izan ere, nahiz eta jadanik urte batzuk izan Gregersen senar-emazteak 1985ean asmatu zutela, arrazoi ezberdinengatik, ez da beraiek nahiko luketen adina zabaldu.

Zer da baina, eta nola erabiltzen da? "Femy" kondoia, logikoa dirudenez, gizonetzakoak bere zakilean jartzen duen "txapela" izan beharrean, emakumezkoak bere maginaren barrenean sartzen duen "ontzia" da. Hau da, gizonetzakoak jarri beharrean, emakumeak jarriko du. Hortxe datza antisorgailu honen



berritasuna, eta hortxe datza, aurrerago ikusiko dugunez, aurkako iritzien arrazoiak.

Betiko kondoien antzekoa da; luzeagoa (17 zm), eta baita zabalagoa (8zm). Itxita dagoen aldean, malgua den eraztun bat du. Erabilitako materiala, latex-aren orde, erresistentzia handiagoa duen poliuretanoa da. Gizonentzako kondoia bezela, sobretxo baten barruan dator, lubrikazio handi batekin, kolokazioa errazteko.

Kondoia jartzerako orduan, itxita dagoen muturreko eraztuna

**"Kritikoentzat, sistema honen berrikuntza bakarra gizonak jarri beharrean emakumeak egiten duela da".**

estutu eta maginaren barruraino sartu behar da. Posizio egokiena diafragma jartzerakoan erabiltzen dena da, hau da, gora begira etzanda, hankak



**OPTIKA  
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057  
20750 ZUMAIA

**ZALLA  
TABERNA - ERRETEGIA**

- \* Plater konbinatuak
- \* Otartekoak
- \* OILASKO ERREAK  
(Enkarguak jasotzen dira)

San Pedro, 4 Tel. 862387 ZUMAIA



gorputzaren kontra ekarriz, eta era beran, zabalduz. Edo baita ere, zutik, hanka bat jaso. Kanpokaldeko eraztuna eta kondoiaren zati bat kanpoan geratzen dira. Bestalde, bere erabileran, gizonezkoen kondoiaren kontutan izan behar diren aholku berdinetaz jabetu. Kondoia ateratzerakoan, muturretik ixtea komeni da, espermatozoiderik ihes egin ez dezan.

**Abantaila eta desabantailak**

Badakigu zer den eta nola erabiltzen den, baina, komenigarria al da bere erabilpena? Antisorgailu guztiek bezela, honek ere baditu bere abantaila eta desabantailak. Hasteko esan beharra dago, bere sorrerak polemika handia sortu zuela, baina hori, antisorgailu guztiek beraien sorreran jasaten duten zerbait berezkoa da ia.

● Abantailekin hasteko, esan dezakegun lehena da, antisorgailutan zegoen aukera zabaltzen duela; baina hori ez da gehiegi. Baina bai da aipagarria, osasunarentzat ez dela kaltegarria, erabilpen erraza duela, eta eskeintzen duen segurtasun maila oso handia dela ( % 0-2 arteko akatsak). Gainera, "oztopozko sistema" bat izanik, sexuaren bidez transmititzen diren gaixotasunak ebitatzen ditu.

● Desabantailak, gizonezkoen kondoiarekin konparatzean azaltzen dira. Hasteko, bere prezioa: gizonezkoena baino 4 aldiz garestiagoa. Bestalde, "Femy"-a ez da adaptatzen maginara kondoi tradizionala zakilara bezain ondo. Gainera, poliuretanoa latex-a baino gogorragoa da, plastikoaren antzekoa, eta soinua sortzeaz gain, desatsegina ere izan daiteke ez badago ondo adaptatua. Guzti honetaz gain, azpimarratu behar da kanpoko eraztuna eta kondoi zati bat kanpokaldean geratzen direla, eta horrek hain garrantzitsua den klitorisaren estimulazioa oztopatzen duela.

**"Femy" kondoa,  
gizonak bere zakilean  
jartzen duen txapela  
izan beharrea,  
emakumeak bere  
maginan sartzen duen  
ontzia da".**

**Aurkako iritziak**

Hasieran aipatu dugu aurkako iritziak ere sortu direla. Hauen argudioa da, batez ere, sistema honek ekartzen duen berrikuntza bakarra kondoa gizonak jarri beharrea emakumeak egiten duela. Hau da, berriro ere,

antisorgailuak erabiltzearen ardura emakumeak hartu behar duela. Tamalgarria iruditzen zaie, juxtu gizonak antisorgailuak erabiltzeko ardura gehiago jartzen ari zirenean, atzerapausoa den kondoi honen agerpena.

Kondoi berri honen aldekoek, emakumearen askatasuna dakarren antisorgailu iraultzaile batetaz hitzegiten dute. Gainera prostituzio kasutan eskeintzen duen abantaila azpimarratzen dute, gaixotasunak ebitatzerako orduan.

Dena den, irakurritakoa irakurrita, bakoitzak atera ditzala bere ondorioak. Eta garrantzitsuagoa dena, antisorgailu bat erabiltzen dugunean, gure aukera libreza izan dadila. ■

**Norbaitek esana**

● "Maitasunak parentesia zabaltzen du; ezkontzak itxi".

*Victor Hugo*

● "Ezkontza da maitasunari, ozpina ardoari dena. Denborarekin bere lehen zaporea galtzen du".

*Lord Byron*

**xirula**



ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA  
Tel. 861705



Basadi Auzategia, 10-A atzean      Telefonoa: 862228      ZUMAIA

# ITXAS-GAIN: KONSTANTZIAREN SARIA

## Azken urte hauetan beti izan ditugu puntaren puntan

Itxas-Gain kirol elkarteak orain dela 26 urte sortu zuten (1968), piraguismoko munduan zebiltzan hamalau pertsonak. Urte guzti hauetan gogor lan egin ondoren, dagoeneko beren fruituak jasotzen hasi dira. Aurreko denboraldian bertan, Espainiako lehen hamar taldeen artean kokatzea lortu dute "lehen bosten artean geratzea ere posible genuelarik".

*Baleike*

Zumaian jendea oso gaztetandik hasten da piraguan ibiltzen, zortzi urtekin gutxi gora behera. Herriko piraguistek oso maila handia dute. Ligorio Urruzuno Itxas-Gain elkartearen arduradun nagusiak adierazi digunez "honen arrazoi nagusienetako bat dagoen ambiente paregabea da. Esan ohi den bezela, denok "piña" bat eginda gaude". Honekin batera, entrenatzaileek egindako lan bikaina ez degu ahaztu behar, lan benetan ona egiten dute. Beraingatik ez balitz, "ez ginateke hain txukun ibiliko". Joxe Manuel Balenziaga izan da orainarte entrenatzaile nagusia, Ana Delia Mendizabal laguntza lanetan egonez.

### Kantera amaigabea

Kanterarekin ez omen dago arazorik. "Zumaian haurrak dauden



*Jo ta ke entrenatzen dute horrelako emaitza onak lortzeko.*

bitartean, kantera ez da bukatuko. Gainera, beste kirol asko bezalaxe, piraguismoa ere eskoletako kirolen barruan sartu da". Hau diputazioak bultzatutako plan bat da eta bertan Itxas-Gainek kontratu baten bidez ikastaro batzuk antolatzen ditu eskoletako haur hoientzat.

Haur hoiekin horrela, kantera bat osatzen dute. "Ez ditugu onenak

aukeratzen eta besteak kanpoan uzten, ez; haur denak hartzen ditugu, onak eta ez hain onak. Guretzat denak berdina dira, guztien artean laguntasun handia dutelarik". Hauxe da Itxas Gain beti puntan ibiltzearen sekretua: ona edo txarra izan laguntasun handia dagoela denen artean.

Neguan astean lau entrenamendu dituzte baina konpetitzen hasten direnean sei egun. Entrenamendu nahiko konpletoak dira, ez dira soilik piraguan jarduten. Korrika, gimnasia, pesak eta era honetako

**"Geure artean laguntasun handia dago".**

**goopy**  
HAUR JANTZIAK  
Amaia plaza, z/g  
Telef. 860959  
ZUMAIA

**CORO PRIETO**  
*Esteticista*

Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g  
Telefona: 861322  
ZUMAIA

julio curiel  
PELOJERIC

Erribera kalea  
Telefona: 862334  
ZUMAIA



Lokal egokirik ere ez zuten hasiera batean.

ejertzioak ere egiten dituzte. Denboraldia luzea izaten da, urrian hasi eta irailean bukatu; horregatik haseran pixkat lasaiago hasten dira entrenatzen, amaiera gogor bat izan ahal izateko.

### Profesionaltasun eza

Piraguismotik bizitzea ia ezinezkoa da. "Piraguismoko jendeak normalean, beren preparazio fisikoa aprobetxatzen dute INEF-eko titulua ateratzeko edo antzeko zerbait egiteko. Baina bai, piraguismotik bizitzea oso zaila da".

Piraguista baten aspirazio handiena selekzioan edo olinpiadetan egotea da. Maila honetan mantentzen diren bitartean, eskeintzen dizkieten subentzioak aprobetxatuz, hortik bizitzeko aukeratzea badute. "Noski, ez da soldata bat baina..." Selekzioan ibilitako jendea saiatzen da selekzioa edo federazioaren kontura beren ikasketak aurrera ateratzen.

*"Direktibak urtero planteatzen duena aurreko urtean lortutakoa berdintzea eta ahal izanez gero gaiditzea izaten da. Gero, piraguista bakoitzak helburu propio batzuk markatzen ditu". Honen arauera, helburu hoiek betetzeko asmotan, entrenatzaileek entrenamendu espezifikoko batzuk prestatzen dizkie. Beraz, klub mailako helburuetaz aparte, norberak ere bere helburuak markatzen ditu.*

### Piraguista baten aspirazioa selekzioan edo olinpiadetan egotea da

Diru kontuei dagokienez, beste asko bezela erdipurdi dabil Itxas-Gain elkarteak. "Piraguismoa kirol garestia da eta ondorioz gure klubeko piraguistek ere diru kuota bat ordaintzen hasi dira.

Diputazioak, federazioak eta batipat Zumaiako Udalak luzatzen dizkigute diru laguntzak. Laguntza hauek jaso arren ordea, ez digu denerako ematen". Hau dela eta, laguntzaren bat eman nahi duenak esker onez hartuko da.

### Erresponsabilitatea

Jendearen erantzuna berriz, oso ona da. Itxas-Gain, Espainia osoan dauden klubak artetik, emakume gehientsuenak dituenak degu. Bestalde, zortzi urtekin piraguismoan hasten dena eta hogeit hamar urtekin jarraitzen duenak, badaki zer den goi mailako kirola eta zer nolako bizitza egin behar duen. "norberak markatzen ditu bere metak eta hoiek betetzeko ezin da ibili kristoren parrandak botatzen; badaki zer egin behar duen. Proba garrantzitsuetara joaten dira eta ez batzuk bakarrik, denak. Hau asko baloratzen dute. Gainera batzuk entrenatzen badaude etengabe konpetitu gabe, azkenerako aspertu egiten dira eta ez dute aurrera jotzen".

Bukatzeko, dei bat luzatzen diote jende guztiari, izerdia botatzera polideportibora joaten diren bezela, piraguan ibiltzen ere bota dezaketela. Ez da federatuentzako kirol bat bakarrik, edonork praktikatu dezake nahi izanez gero.

Piraguan ibiltzeko eskursioak edo irteerak ere nahi dituzte antolatu. Beraz, kirol eder hau praktikatu nahi dezuen guztiok gonbidatuta zaudete. Animatu zaitezte! ■

KOSTA  GAS

GAS ETA  
KALEFAZIO  
INSTALAZIOAK

**expert**  
**ELEKTROGAILUAK**

Mertxe Aizpurua  
expert eta  
Repsol-Butanoren  
Banatzaile Ofiziala

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

ITZURUN



KIROLAK

---

Amaiako plaza, 13  
Telef. 860758  
20750 ZUMAIA

# Hondartzako futbol txapelketa hastear

## Hilabete honetan hasiko da plaierotako San Telmo saria berrikuntza gutxiarekin.

Urtebete gehiagoz, aurten ere plaierotako txapelketa jokatu da Itzurungo hondartzan. Beti bezala, urrian hasiko den edizio berri honek San Telmotako jaietan izango du amaiera festa giroa aprobetxatuz.

*Baleike*

Gazte eta hain gazte ez diren herritarren artean jarraipen handia du txapelketa honek, bai zuzenean bertan parte hartuz, bai ikusle moduan. Eta egia esan gero eta jende gehiago inguratzen da, urte-urte gorakada handia emanaz.

Irailean amaitu zen izena emateko epea, aurtengoan aurreko urtetan baino talde gehiagok hartuko dutelarik parte, gazte koadrila berriak animatu direlako, eta zaharrak ere Itzurungo hondarretara itzuli direlako *Ximitaxo*-n kasua bezala.

Irailean amaitu zen izena emateko epea eta txapelketari dagozkion xehetasun guztiak argitzeko bilera bat ere egin zen. Parte hartuko duten talde guztien artean, denok denon kontrako liga bat jokatu dute.



*Hil ta Pakia 94ko kopa txapelketa itabazi ondoren. Desmadratu hauek irabaztea ere...*

Hemendik onenen artean sailkatzen direnak azken faseko partiduetan arituko dira, eta kanpoan geratzen direnek, kopa jokatu dute. Beraz, ez dago arazorik kanpoan geratuz gero ere.

Faboritoen artean, ligarako *Axier Kirolak* taldeak aukera asko ditu. Kopan aldiz, azken bi urteetan gertatu den bezala, *Hil ta Pakia* taldeak txapelkun geratzeko egin beharreko guztia egingo dute.

Hala ere, badira kritika ugari orain arteko antolakuntzari. Talde batzuren ustez, diru gehiegi ordaintzen da (30.000 pza. taldeko) gero segururik ere ez izateko, eta sari bezala kopa bat besterik ez jasotzeko. Hauen ustetan, gutxienez seguru bat egon beharko litzateke, Zarautzko txapelketan bezala, eta finalistentzat gutxienez afari bat San Telmoak direla aprobetxatuz. Bestalde, galdera orokorra da: nora joaten da hainbeste diru? ■



**SORGINA**

**ARTISAUTZA**

Baltasar Etxabe, 2 behea 20750 ZUMAIA  
Telefona: 143229

**KALARI** TABERNA  
JATETXEA

- \* Eguneko menua
- \* Plater konbinatuak
- \* Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA

Zumaiar gazte batek Xabier Kalparsorori eskeinitako bertso batzuk iritsi zaizkigu oraingo honetan. Pozgarria egiten zaigu ikustea, piskanaka piskanaka zuen grinak gure txoko honetan argitaratzera animatzen zaretela. Ea horrela jarraitzen dezuen!

**Egilea: Andoni Manterola**  
**Doinua: Ia guriak egin du**  
**Neurria: Berezia**

## "TXATO"

-1-

Kantatutzen hasi nahian  
 ohitura degun legian  
 bazan gure artian  
 hemen Zumaia aldian  
 mutil oso maitatua  
 esku txarrez akatua.

-2-

Egin zuten detenitu  
 drogatu ta torturatu  
 berarekin jolastu  
 pertsona zela ahaztu  
 nazkik eman gabe ezin  
 dute hoiek ezer egin.

-3-

Hartuko zuen egurra  
 lagunak ez da gezurra  
 zuen bizi-poz hura  
 Euskadiren onura  
 eten zioten sustraitik  
 boteaz leiho batetik.

-4-

Berak zerbeza bat edan  
 omen zuen gela hartan  
 karraxia izango zan  
 zerbeza ordeztu ahoan  
 borrero baten eskuak  
 zer ziren probatu zun hark.

-5-

Gezurra diote ugari  
 sinistatu nahirik guri  
 nori sartu nahi hori  
 alperrikan ez neri  
 hau duk hau mundu krudela  
 ta bertan jende ustela.

-6-

Euskadi ez zuen utzi  
 berak bereari eutsi  
 hainbat injustizi hautsi  
 eta aitzaki gutxi  
 beragandikan ikasi  
 denok zerbaitetan hasi.

-7-

Berak in du hainbat irrintzi  
 ta badu hainbat garrantzi  
 baina ezin da ahantzi  
 Miren Gurutze Iantzi  
 gure "TXATO"-kin batera  
 ere hil baitzuten bera.

-8-

Bukatu're egitea  
 ez da bakarrik hastea  
 Gora Euskadi Askea  
 ez da errexa lortzea  
 alperrikan ari dira  
 denok geureari tira.

## erakusketak

\* **Urriak 3tik 12ra bitartean**, EUSKAL HERRIKO SOINU TRESNAK erakusketa Forondan. Lorentxo Altubek prestatutako erakusketa da eta egunero izango da ikusgai, arratsaldeko 6'30etatik 8'30etara.

\* **Urriak 15ean hasi eta 30 arte**, berriz, BEGOÑA EGIGUREN zumaiarraren pintura erakusketa izango da, Foronda Kultur Etxean baita ere, ordutegi berean.

Begoñak erakusketa hau aurkeztean helburu bakarra agertzen du: " *Guraso lanak bete ondoren, gure ajeetaz pentsatzeko denbora libre asko dugunok animatzea; zuetako asko, ni neu bezala, eskola utzi zenutenetik pintzela ikutu ere egin gabe egongo bazarete ere. Forondan nauzue zai.*"

## Diapositiba emanaldia

**URRIAK 14ean**, "TIBET - NEPAL" izenburua duen diapositiba emanaldia izango da, Forondan, arratsaldeko 7'30etan. Rafa Berasategi eta Koke Lasak prestatutako montaiak da eta honela laburtzen digute egin duten lana.

" Lur honen azalera honen mendirik garaienek Nepal-eko erresuma eta Tibet-eko meseta banatzen dute. Himalaia (sanskritoz "elurren egoitza") da muga, euri monzonikoa Nepal aldean jaurtiz eta Tibet aldean desertu agor bilakatu. Geografia eta klima medio, lurralde hauetan bizikera berezi eta aparteko herriak kokatu dira. Egungo mendera arte isolaturik eta misteriotsu bizi izan dira, atzerritar eraginetatik at. Gaur oraindik, paraje hauek ailega ezinezko tokiak eta lejenda harrigarriak ezkutan dituzte."

## Aste Mikologikoa

Urtero egiten duen bezela, Inda-Mendi M.B. elkarteak aurten ere Aste Mikologikoa antolatu du, urriaren **20an** hasi eta **23ra** bitartean.

Jarraian azaltzen dizuegu zein den egitaraua, baina orduak eta bestelako xehetasunak zehazteko hobe dezue aterako diren esku-programak eskuratzea.

Urriak 20an, osteguna, **BIDEO EMANALDIA** eta hitzaldia izango dira Oxford-en.

Urriak 21, ostiralean perretxiko **DASTAKETA** izango da Inda-Mendi elkartearen.

Urriak 22an, goizean goiz **IRTEERA** bat antolatu da perretxikoak biltzeko.

Igandean, azkenik, egun guztian zehar **ERAKUSKETA** izango da Odieta pilotalekuan.



Tibet eta Nepal inguruko irudi ederrak ikusteko aukera dezue hilak 14an.

## Oharrak

\* Herriko argazki zaletuei oharra: Forondan **KUTXA**ren bidez eskeintzen dira diapositiba emanaldiak; baina jakin badakigu herriko jendeak ere badituela ikustea merezi duten montaiak.

Anima zaitzete eta jarri Kultur Etxearekin harremanetan (861056 telefonora deituz).

\* **IKASTAROAK**: Udazken-Negu-Udaberriko programaketa antolatzen doaz Foronda aldean. Deitu eta esaiguzue nolako ikastaroak nahi dituzuen.



**AIZPURUA**

LIBRERIA  
R U D E N D O P A R I A K

Aita-Mari Auzategia, 17  
Telefona: 861569  
20750 ZUMAIA

Opari artikulua

**algorri**

Lurrindegia



Erribera kalea, 5 ZUMAIA Telefona : 862398

# ZINE FORUM-A BERRIZ ERE

## Hil honetan hasi eta urtea bukatu artean 6 emanaldi emango dira

Hiru urtean batere zinerik gabe egon ondoren, aurten berriz ere martxan jarri zen gure Aita Mari zahar berritua eta honekin batera momentuko pelikularik ezagunenak berriz ere gure herrira iristen hasi ziren.

Baina hiru urte hauetan zinea ikusi nahi zuenak derrigorrez Zarautz, Azpeiti edota Donostia aldera joan behar zuen, eta herritar asko geratu zen pelikula on ugari ikusteko aukerarik gabe.

ZINE FORUM taldeak duen lehen asmoa, tarte honetan izan ziren pelikula onentsuenak inguratzea da, komertzialak ere tartean, lehen ikusi izan ez zuenak oraingo aukera aprobetxa dezan.

Urte hau bukatu artean behintzat, hamabostean behin izango dira emanaldiak; beraz, sei emanaldi dira taldekoek oraingoz prestatu dituztenak.

Aste batzuk badira biltzen hasi zirela, eta egin zuten lehen gauzetako bat pelikula interesgarrien zerrenda bat egitea izan zen. Lehen aipatu ditugun azken urteetako pelikula horiekin amaitu ondoren, bestelako batzuekin jarraitzeko asmoa dute: pelikula "kultoagoak", berriak eta hain ezagunak ez baina oso onak direnak, bertsio ofizialekoak, eta abar.



*Emanaldi guztiak Aita Mari zineman izango dira.*

Talde honen inizatiba interesgarri honekin behintzat, astegunetan egokitzen diren hutsunetxo horietako bat estaliko da, oraingoz astero izango ez bada ere. Ostegunero Aita Mari zinemara joan eta pare bat orduz zine ona ikusteko ohitura sortzea, benetan pozgarria izango litzateke gure herri honetan.

Bestalde, ideia edo proposamen berririk badezu, edota taldearen funtzionamenduaren berri izan nahi badezu, jakinerazi nahi dizugu taldea irekia dela eta hurrengoko bilera anuntziatzen dutenean, lasai asko azal zaitezke la Foronda aldera. Zai dauzkazu !

Sarrera 400 pztan izango da eta beheko izenburuak behin-behinekoak dira; hauek ezin badira ekarri, ordezkokoak ere hauek bezain onak izango dira. Hala ere, komenigarria da egunak, orduak eta izenburuak Aita Mari zineman bertan egiaztatzea. Besterik gabe, urte askotarako !! ■

**URRIAK 6**  
Delicatessen

**URRIAK 20**  
El niño que gritó puta

Auto - Konponketak

**ELKAR**



**PEUGEOT**

Estazioko kalea  
20750 ZUMAIA

Telefonoa: 860201

*agustin*  
HARATEGIA  
URDAITEGIA

Itzurun Zuhaitz-bidea, 1  
20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

# KE RULE: Santutxuko reggae frexkoa

Nahiz eta Gipuzkoan ezagunak ez izan, etorkizun handiko taldea dugu

Muga eta kolore guztien gainetik, pertsonen eta herrien eskubide eta askatasun egarriak mezu zuzen eta garbi batekin aldarrikatzen dituen talde bat dugu KE RULE. Reggae-az apaindurik zabaldu nahi dute mezu hori Santutxukoek. Beraiekin izan ginen elkarrizketa batean, bertan, bai beraietaz bai Euskal Herriko musikaz hitz egin genuen.

Baleike

*Noiz eta ze asmorekin sortu zen KE RULE proiektoa?*

Elkartu, 93ko abenduan elkartu ginen, baina aurrean urtarrilean egin genituen gure lehen abestiak. Asmoei buruz, noski, denon ilusioa dela musikaz bizi izatea baina oso zaila da. Dena den, dagoeneko eta uste baino askoz lehenago bide hontara hurbiltzen ari gara eta denok gure lanak utzi ditugu taldea hobeto lantzeko.

*Zenbat kidek osatzen duzue K.R. eta, hau al da lehen esperientzia musikala?*

Zazpi lagun gara eta gehienok ditugu aurretik esperientziak musikaren munduan, perkusioak eta abeslariak ezik. R & R eta R & Blues-a landu



ditugu. Bai, badakigu zer dagoen mundu honetan.

*Zergaitik reggae-a?*

Bera delako bizitza ematen duena, gainera gaur egun musikari askok jasotzen dituzte bere influentziak. Atsegin ditugu, bai reggaea eta bai Jamaika.

*Ze musika entzuten duzue?*

Taldea sortu baino lehenago denetik, euskal rocka asko jarraitzen genuen baina orain guk lantzen dugun estiloa entzuten dugu gehien bat:

Dennis Brown, Peter Tosh eta horrelakoak, noski Bob Marley. Dena den, Blues-ari ere ematen diogu entsaioetan; baita ere R & Roll-ari.

*Eta E.H.n bertan egiten den musika?*

Talde gehienak alde berdinerak jotzen dute, baina gauza berri eta alternatiboak ere sortzen ari dira, oso interesgarriak direnak. Ezin dugu beti berdina egiten jarraitu.

*Zuzeneko zirkuitoan, denek al dute aukera berdina?*

Momentu hau ez da pop-aren

**IHINTZA  
TABERNA**

Ortega y Gasset,3

Tfnoa: 860472  
ZUMAIA

**TXALAPARTA  
OPARIAK**

Angeles Sorazu, 2  
20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 89  
Fax. 43 06 37

**JEMAR**

**LOREDE NDA**

LANDAREAK

LOREAK

HAZIAK

ZERAMIKAK

Erribera, 1 Telefonoa: 860375  
20750 ZUMAIA



edo antzekoen garaia, noski talde errebeindikatiboak aukera gehiago dituzte jotzeko, baina denek dute beren entzulegoa, nahiz eta txikia izan.

***Egia al da krisialdia dagoela musika mailan?***

Bai. Konturatzen bazara lehengo urteko diska gehienak bildumak eta errekopilatorioak izan dira. Gainera musika mailan dena idatzia dago eta oso zaila da zerbait berria sortzea. Fusioa da gaur egun freskotasuna.

***Laguntza mailan, nola daude taldeak E.H.n?***

Denean bezala, oso gaizki. Ez dago ezer. Guk ez dugu diru asko eta horrela mantentzea ez da erraza. Instituzioek ez dute laguntzen batere, eta herri mailako musika eskolak oso gutxi daude.

***Taldearen kontutara itzuliz, zerbait grabatu al dezue?***

Bai, apirila inguruan sei abestitako maketa bat grabatu genuen. Gehien bat zer egiten ari ginen jakiteko, baina hiru astetan atera genituen maketa guztiak eskutik kendu zizkiguten: 700 bat. Nahiko soinu kaskarra zuen, lokalean grabatu baikeuen (baserrian). Orain beste bat grabatu dugu Bilboko "Tio Pepe" estudioan

bost abestirekin, bi berriak. Ez dugu editatu.

***Badakigu zenbait proposamen jaso dituzuela?***

Bai, beno, zenbait diskaetxerenak bai, beraien artean badaudelarik multinazional batzuk. Ezer argi izan arte, ez diegu ardura gehiegirik eman nahi, momentuz ez dugu nahi inorekin ezkontzerik. Gauza horiek oso konplexuak dira. Jamaikara ere gonbidatu gaituzte diska bat grabatzera.

***Nondik zehar jo dezue?***

Gehien bat Bizkaian, gure kontu edo bestela telonero gisa. Adibidez UB 40 taldearekin jo dugu. Gipuzkoan gutxi, Gasteizen eta Nafarroan pare bat aldiz, Malaga, Bartzelona, Alikante.. bai, nahiko mugitu gara. Guri gehien atsegin zaiguna Euskal Herriko txokoak ezagutzea da; Bizkaitik kanpora gehiago jo nahi degu.

***Bukatzeko, proiektuak?***

Momentuz uda ondorengo kontzertuak prestatzen ari gara eta ziuraski diska bat grabatzeko aukera izango dugu lehen aipaturiko multinazional batekin. Horregaitik ez dugu kaleratu maketa berria.

**hondartza,  
a ze martxa!**

Ba zen ordua Zumaian ere txoko berezi bat topa genezan, Rock kontzertu eta antzerakoak egiteko. Azkenean, guraso eta zaharren begiradetatik babesten gaituen Rockodromo aproposa topatu dugu: Itzurungo hondartza.

Bi kontzertu izan ditugu bertan denbora gutxian: batetik Gazte Batzordeak antolatutakoa hiru talderekin: Euripean Sua, The Pack, eta Parabellum. Honek suposatu zuen montaje guztia, (milioia pasako aurrekontua) udalaren laguntza, sarrera txiki batekin, eta jendearen parte hartze onarekin osatu ahal izan genuen.

Bigarren kontzertua, musika eskolako ikasle gazteek eskeini zigutena izan zen. Ederki pasatzeko aukera bat, eta herrian piskanaka musika munduan hasten ari diren gazte horiei entzuteko parada ederra, hauen artean, neskez soilik osatutako talde bat ere bazegoen, gainera. Animo ba, eta jarraitu horrela!!

**TXOKO  
TABERNA**

**Artadi auzoa  
ZUMAIA**


*Jesuskoa  
Jatetxea*



*Teloa 86 17 39 • Oskia Zumaia*



## GURUTZEGRAMA



**EZKER ESKUIN:** 1.- Proiektuak. 2.- Han-hemenka barreiatu. 3.- Titanioaren sinbolo kimikoa. Musika erritmo mota. Estatu Batuetako osabarik ezagunena. 4.- Otargile. 5.- Beldurra. Gauero egin ohi dugu. Bokal bikoitza. 6.- Gipuzkoako herria. Kontsonante bikoitza. 7.- Iratzea, garoa. Iparraldean, gurdia. Kontsonantea. 8.- Ur kirola. Rastafaria. 9.- Afrikako estatua eta uhartea. 10.- Oigileak. Guztiak, denak.

**GOITIK BEHERA:** 1.- Zenon Zitiokoak sortu zuen eskola filosofiko mota. 2.- Pluralean, aleen edukiera-neurria. 3.- Iparretarrak. Ausartasun. 4.- Ohialak urratzeak sortzen duen hotsa. Ekialdean, joan. 5.- Adar. Bokal bikoitza. Galioaren sinbolo kimikoa. 6.- Pluralean, belar mota. 7.- Manganesoaren sinbolo kimikoa. Errepikatuz, nahi. Etengabean hedatzeko tasuna duen gorputza. 8.- Basamortuetako berdegune. Buru. 9.- Sailak. Jatorri atzizkia. 10.- Umea. Ogi.

### 8 letra

Emakumea Alak  
Otarteko Amak  
Tantaiak Aroa  
Zikoinak Atea

### 7 letra

Arakatu Azti  
Balerdi Bala  
Ganibet Bare  
Zamaria Begi

### 4 letra

Aita Aroa  
Akta Atea

### Izen

Lana  
Mari  
Nota  
Otan  
Ziba  
Zien

### 2 letra

Ar  
Bo  
Ib  
Ke  
Ma  
Ni  
Ug  
Ur


### 3 letra

Bit  
Gar  
Ira  
Lar

## KATE HITZAK



MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
ZUMAIA

**ONCE**

**JOXE  
MANUEL**

**Kupoi batzuk  
erosi eta ...**

**ZORTE ON !!**

**ITSASKI**

**SUPERMERKATUA**

Urumea kalea, z/g  
20750 ZUMAIA

**AGURRAK**

Gazta, antena hoiekin  
martziano bat ematek!!

Kobaxuluan geratzen  
dian bi txorixarrei: gogoratu  
ohitura xarrak mantentzia  
beharrekua dala nortaxunak  
iraun dexan...

Gure neska txikiei:  
txaleko ta guzti gorri batzu  
hartu behar ditugu elkarrekin,  
ala? (gasagaz hauek ere, noski).

Manu, hi haiz hi kajeroa!

Fredital relax. Igandetan  
lorik egin ez, eta astelehenetan  
buruko, besoko eta daneko  
minakin jaikitzeke erarik  
onena.

**SALDU/EROSI**

Kiste eder bat saltzen diot  
interesatuta dagon edozein  
harakini. Prezioa kiloka.  
Kuadrillei prezio berezia..

Kondoia saltzen ditut,  
gutxi erabiliak (bi edo hiru  
aldiz bakarrik).

**ALDIZKARI HONEN  
SALMENTA PUNTUAK**

- Jesuskoa
- Errota
- Ogi Berri
- Arkupe okindegia
- Alai janaridenda
- Aizpurua liburudenda
- Olano liburudenda
- Erkibe
- Nikol kafetegia
- Inpernupe taberna

**ZORIONAK**

Aldizkari honen berri izan  
nuenetik, arreta bereziz jarraitu diodala  
aitortu behar dut, izan ere, Gazte  
Batzordearen lehenengo urratsen  
zurrunbiloek, hain gazteak ez garenak  
ere ukitu gintuzten; hara non eta, inork  
kontrolatzen ez zituzten mukizuak  
Udaleko patxada gozoa aztintzeko gai  
agertu ziren! Bai baina...; egin eta  
gero hitzegingo dugu...; ikusiko da...  
eta zenbat horrelako entzun behar izan  
ote duzuten imajinatzen saiatzen naiz  
eta haserreak susmatzen ditut.

Beno ba, Baleikeren 4. alea  
irakurri ondoren, gusto handiz talde  
osoa zoriondu nahi dut. Eta  
zoriondu suposatu dudan ikuspuntu,

helburu eta iritzi ezberdinen gaintik  
ekintzetara jo duzuelako. epeak  
errespetatuz sinesgaitzak ginen guztioi  
zer ikasia erakutsi diguzuelako.  
Hainbeste titulazio, profesionaltasun  
eta curriculum ezinbesteko jotzen  
dutenen aurrean, gogoia eta lanaren  
bitartez, benetan desio dena daitekela  
demostratu duzuelako, eta bitarteko  
ahulekin ere, Zumaiari euskaraz  
idatzitako aldizkari majo hau eman  
dizutelako.

Ez naiz, aurrerantzean sortuko  
diren zailtasunei buruz arituko,  
(zabalkuntza, interesa,  
erakargarritasuna, kalidadea...) baina  
zain nauzue eta asmatuko

**G**utunak

duzuelakoan nago. Bakarrik esan,  
hilaren hasieran, kafearen usain  
ederrarekin, hasi eta bukatu arteko  
irakurketa etengabeak eman zidan  
egonaldi gozoak, aspaldian ez  
bezalako ilusioa eta irrifarra eragin  
zidala. Merezi du.

**Belen Uranga**  
(15.564.515)

**A z a r o a k o**  
zenbakia prestatzen  
eta lantzen ari gera  
jadanik. Zure gutun,  
iritzi, mezu edo beste  
edozein lan guk  
argitaratzea nahi  
badezu, bidal itzazu  
Foronda Kultur  
Etxera, azaroak 15a  
baino lehen.



**Taosa** SURF DENDA

- \* Bainujantziak
- \* Surfeko tablak
- \* Poliesterrezko plastifikatzeak
- \* Erropetako serigrafia
- \* Toallak
- \* Erropak

Erribera Kalea, 17 - 20750 ZUMAIA



# Solozabal autoeskola

Gidariak lantzen onenak



## Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean.
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
  - Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta, 19 - Bis

Tel. 861416 • Fax: 861416

ZUMAIA

*Zumaiako  
Gazte  
Batzordea*